

GAZTEENTZAKO MATERIALAK

“ERDU - TE INVITO”

1. Sarrera (oinarriak)

Caritas Bizkaiaren kanpaina boluntariotzaren gaian zentratu da. Zaintzaren eta komunitate abegitsuaren bidez sortzen diren loturen ildotik jarraitzen dugu.

Boluntarioen konpromisoa harremanak zaintzeko tresna sendoa da, gizarteratze-lanerako funtsezkoa baita. Boluntarioek gizartea eraldatzeko motibazioa dute, eta laguntzeko prest daude. Gertutasun horren bidez, harreman sendoak sortzen dira, eta horiek lagungarriak dira gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko.

2. Dinamika

4 pertsonako taldeak egiten dira (talde txikiagoak izan daitezke). Talde bakoitzari orri bat ematen zaio. Orrian hiru zirkulu zentrokide daude. Barruan hitz bat dago: BOLUNTARIOTZA. Orriak banatuta, hitza irakurriko dute, eta bideoan ikusi dutena kontuan izanda, barruko zirkuluan burura datorkien lehenengo hitza edo ideia idatziko dute (hitz horrekin erlazionatuta); bigarren zirkuluan, bigarren hitza edo ideia; eta kanpokoan, hirugarrena. Ez du inporta errepikatzea. Pertsona bakoitzak hitz bat idatziko du zirkulu bakoitzean.

Taldean komentatzeko denbora emango da, hitz horiek zergatik idatzi dituzten azaltzeko. Gero, taldeek lana komunean jarri eta boluntariotza ondoen definitzen dutela uste duten 5 hitz hautatuko dituzte. Apuntatu eta ondo ikusteko moduko leku batean utziko dituzte.

Ondoren, Caritasen boluntariotzari buruzko Kanpainaren bideoa jarriko dugu (<https://youtu.be/pME385FU2PI>), eta honako galderei erantzungo diete:

- Zerk eman dizu atentzia bideoan?
- Zer da garrantzitsuena bideoan irteten diren boluntarioen ekintzan?
- Zer nabarmenduko zenuke boluntarioen laguntza jasotzen duten pertsonen lekukotzen inguruan?
- Orain, hautatutako bost hitzez gain, besteren bat gehituko zenuke? Zein?

3. Otoitza

Dinamikan partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

Boluntario lez jarduten dogunean, Jesusen esku eta oin bihurtzen gara, Jesusen begi eta belarri egiten gara beharrianak ikusteko eta entzuteko eta Espiritu Santuak bultzatuta behar dana esateko edo egiteko. Egoera honek fedea sendotzeko balio deusku.

Bai, ahal dot.

Bai, gaur zerbait egin daiket,

bai, zerbitzuren bat eskaini daiket,

bai, ondo esandako zerbait esan daiket,

esaidazu zelan egin, Jauna.

Bai, giza akatsa konpondu daiket,

bai, indarra emon deikeot lagun hurkoari,

bai abestuz poztu daiket,

esaidazu zelan egin, Jauna.


Bai, lagundu deikeot zoritxarrekoari,

bai, zamaren bat arindu daiket,

bai, poztasun gehiago erakutsi daiket,

esaidazu zelan egin, Jauna.

Grevnille Kleiser





BOLUNTARIOTZA